

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

11. astea (2025eko martxoaren 10etik 16ra)


Gripe-birusaren zirkulazioak beheranzko joerarekin jarraitzen du, ABSak bezalaxe, azken honek gora behera txikiak dituen arren. COVID-19 kasu kopurua balio baxuetan mantentzen da.

- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 337,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (348,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egiten jarraitzen du. Bronkiolitisaren tasak gora egin du aste honetan eta COVID-19arena balio baxuetan mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 49 lagin jagoleen % 71,4 baieztatu da, 11 gripe-birus eta ABS bat detektatu direlarik. Ez da SARS-CoV-2rik detektatu.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 13,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,8/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 151 gripe-birus, 52 ABS eta 31 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikoko jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 337,6 kasukoa izan da (348,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 277,3/100.000 izan da Araban, 328,8/100.000 Bizkaian eta 379,5/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2696,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urteko adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1295,1 eta 445,4 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 137,7 kasukoa izan da (151,3/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI batzuetan eta gora besteetan aurreko astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 11. astea	Tasa 10. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	304,8	311,4	0,98 (0,89-1,07)
Arabar Errioxako ESI	416,6	501,6	0,83 (0,57-1,21)
Barakaldo-Sestaoko ESI	302,8	295,7	1,02 (0,89-1,18)
Barrualde-Galdakaoko ESI	349,4	383,5	0,91 (0,84-0,99)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	354,9	385,6	0,92 (0,85-0,99)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	336,2	342,4	0,98 (0,87-1,11)
Uribeko ESI	244,2	241,0	1,01 (0,90-1,14)
Bidasoako ESI	376,8	345,8	1,09 (0,92-1,29)
Debabarrenako ESI	361,9	409,4	0,88 (0,75-1,04)
Debagoienako ESI	314,7	300,7	1,05 (0,86-1,27)
Donostialdeako ESI	357,9	354,9	1,01 (0,93-1,09)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	390,0	424,3	0,92 (0,80-1,06)
Tolosaldeako ESI	465,9	445,8	1,05 (0,89-1,23)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 9,7 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (13,4/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 100.000 biztanleko 242,3 kasutan kokatu da (213,8/100.000 aurreko astean). COVID-19arena baxu mantentzen da eta 100.000 biztanleko 2,0koa izan da (1,5/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE**



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 49 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 71,4 baieztatu dira. 11 gripe-birus (AH3 bat, 8 AH1pdm09 eta B motako 2) eta ABS bat atzeman dira, baina ez SARS-CoV-2rik. 14 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE**



Gripe-birusaren positibotasuna % 22,4raino igo da (% 11,1 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 2,0an mantendu da (% 2,2 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena % 0,0ra jaitsi da (% 6,7 aurreko astean). Urtaroko koronabirusaren positibotasuna % 28,6ra igo da (% 8,9 aurreko astean).

**Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin
jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE**


	11. astea		10. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	11	22,4	5	11,1	505	33,4
SARS-CoV-2	0	0,0	3	6,7	25	1,7
ABS	1	2,0	1	2,2	68	4,5
Metaneumobirus	3	6,1	3	6,7	31	2,0
Parainfluenza	1	2,0	1	2,2	51	3,4
Adenobirus	3	6,1	0	0,0	61	4,0
Errinobirus	3	6,1	16	35,6	256	16,9
Urtaroko CoV	14	28,6	4	8,9	75	5,0
Enterobirus	1	2,0	1	2,2	38	2,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 13,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,8/100.000 aurreko astean), 14,9/100.000 gizonetan eta 11,1/100.000 emakumeetan.

**AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 51,7 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 39,1 eta 9,6 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoen arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 1,7koa izan da 100.000 biztanleko (2,0/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,4koa 100.000 biztanleko (0,7/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,2 kasukoa 100.000 biztanleko (0,3/100.000 aurreko astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du aste honetan eta % 18,9an kokatu da (% 16,3 aurreko astean). ABSren positibotasuna jaitsi egin da eta % 7,4an kokatu da (% 10,3 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 2,2koa izan da (% 2,1 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	11. astea		10. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	226	2,2	291	2,1	6805	2,0
Influenza	217	18,9	263	16,3	6186	26,2
ABS	203	7,4	252	10,3	5717	12,5

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 151 gripe-birus, 52 ABS eta 31 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 151 gripe-birusetatik, 81 A motakoak izan dira, 52 A(H3), 14 A(H1)pdm09 eta 4 B motakoak. 2024/40 astetik 8779 detekzio erregistratu dira, 6788 (% 77,3) A motakoak eta 1991 (% 22,7) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3395 birusetatik, 2278 (% 67,1) A(H3) eta 1117 (% 32,9) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko martxoak 19

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza